

2025 UDAL AURREKONTUAREN MEMORIA

Aurkezten ditugun aurrekontuak egiteko orduan **3 ardatz nagusi** izan ditugu kontutan:

Herri nortasuna. Euskara, kultura, aniztasuna, berdintasuna, hezkuntza ditugu gure nortasun ikur eta herri balore nagusiak. Irurarren ezaugarri eta balore horietan lanean jarraitu eta sendotzea da helburua. 2024. urtean herritartasunaren inguruko diagnostikoa egin dugu parte-hartze prozesu baten bidez eta bertan, etorkizuneko erronka eta ekintza zehatzak definitu dira. Gure herrira bizitzera datozen familiei harrera egokia egitea da erronka nagusi horietako bat, horregatik datorren urtean hori garatzeko pausoak emango ditugu. Herri bezala nor garen mantentzea garrantzitsua da baina datozenei ateak irekitzea baita ere. Izaera komunitarioa indartu eta gizarte kohesioa saretzen saiatuko gara.

Herri jasangarria. Guretzako jasangarritasuna ardatz nagusia dela esan dezakegu. Oinarrizko irizpidea. Helburua argia da: gure ondorengoek guk jaso dugun herriaz gozatzeko aukera izatea. Aurrez aipaturiko baloreetan oinarritutako herri jasangarri bat eraikitzea izango dugu helburu. Ardatz honen baitan kokatzen ditugu hirigintza, ingurumena eta zerbitzuak. Besteak beste hondakinen kudeaketa jasangarria lortzea izango dugu helburu, kontzientziazio mailan lanean jarraituko dugu eta, Tolosaldeko Mankomunitatearen eskutik, zerbitzuaren eraginkortasuna hobetzeko pausoak ematen jarraituko dugu.

Mugikortasun jasangarria sustatzea, ere, ezinbesteko baldintza dugu. Ibilgailu motordun kopuru handiak dabilzan bi errepideen artean dago Irura eta horren aurrean, oinez eta bizikletaz modu eroso eta seguruan ibiltzeko aukera ematen dituzten proiektuak garatuko ditugu. Horren adibidea dira plazaren peatonalizazioa edo tokiko bidegorri sarearen garapena. Datorren urtean plazako obrarekin hasiko gara, bidegorri zati bat jaso duelarik eta tokiko bidegorri sarearen proiektuaren idazketarekin jarraituko dugu.

Ongizatea. Balore jakin batzuetan osatutako herri jasangarri bat eraiki nahi dugu HERRITARRAK ongi bizitzeko, gizarte parekide batean bizitzeko. Generoa edota jatorria edozein delarik ere, bazterketarik gabe eta askatasunez bizi ahal izateko. Herritarren zaintza erdigunean kokatuko duena, ingurumenarekin armonian biziko dena, herritar eleanitzez osatua, eta bizikidetzeta eta kultur aberastasuna oinarri, euskaraz biziko dena. Balore horiek gure nortasun ikur bihurtuz, irurarrak Iruran hobeto bizi daitezen, osasuntsuago eta alaiago, zerbitzu egokiz hornitu nahi dugu gure herria, eta gure garapen ekonomikoa helburu horren zerbitzura jarritz. Irurar guztiei, izan gazte izan heldu, bizi kalitate hobea eskaintzeko helburua izango dugu zehatz esanda. Zaintzen duen herri bat nahi dugulako, arlo honetan eragiteko pauso berriak emango ditugu. 2024ean zaintza arloko azterlan bat ipini dugu martxan beka bidez eta datorren urtean bertan jasoko diren erronkei erantzuteko ekintzak definitu beharko ditugu.

2019az geroztik, udalak aurrekontuetan diru kopuru bat gorde izan du Iruratarren nahiei bideratuta, aurtun, hasiera batean ez dugu diru kopuru jakinik doitu horretarako. Udalak erronka nagusi bezala herriko plaza eta inguruko peatonalizazioa jarri ditu. Hala ere, datorren urteko, 2026ko aurrekontuetan 60.000€ partehartze prozesura bideratzeko konpromezua hartuko du Udal Gobernuak.

Egitasmo horiek guztiak aurrera eramateko, argi daukagu udal baliabideak herriaren zerbitzura jarri behar direla, eta kalitatezko zerbitzu publikoak irurarrei eskaintzeko helburuz.